

# GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2022/23 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA

---

## Gradu Amaierako Lana

### Izenburua

**Kulturartekotasunaren lanketa Lehen Hezkuntzan Ikaskuntza-Zerbitzuaren bitartez**

### Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)

Egungo gizartea gero eta anitzagoa da; kultura eta jatorri desberdinetako pertsonak elkarrekin bizi dira eta horrek guztiak aldaketa ugari ekarri ditu. Eskolak, agente sozializatzaile moduan, errealitate berriari erantzun behar dio eta zentzu horretan, eskolak egun duen erronka nagusi eta garrantzitsuenetako bat kulturartekotasunaren lanketa dela esan genezake. Alabaina, ikasgelan dagoen kultur aniztasuna baliabide bikaina dela kontuan hartu behar dugu, irakasleek kultura eta aniztasunari buruz irakasteko aukera ematen baitu, bai eta ikasleek elkar hobeto ezagutzeko ere, euren arteko desberdintasunez edota hartu eman modu desberdinez kontziente izanik. Kulturartekotasunak beste testuinguru batzuetako ekarpen teoriko eta esperientziak berreskuratzeko aukera ematen du. Gainera, berrikuntza pedagogikoa eta kulturalki egokiagoak diren estrategiak sortzearen alde egiten du. Horrenbestez, Gradu Amaierako Lanaren helburua da, Lehen Hezkuntzako irakasle izango diren heinean, honetaz guztiaz kontziente izatea, eta kulturartekotasuna, justizia soziala edota bizikidetzaren indartuko dituzten saioak diseinatzea eta abian jartzea, I+Z metodologiaren bitartez.

### Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak

### Campus

*Gipuzkoa*

### Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)

*Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea*

## **Titulazioa**

*Lehen Hezkuntzan Gradua*

## **Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza**

Euskara

## **Irakasle arduraduna**

**Nerea Permach**

## **Posta elektronikoa**

nerea.permach@ehu.eus

## **Campus Bizia Lab (CBL) proiektua**

**Errealitateak eraldatuz**

## **CBL proiektuaren webgunea**

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/transformando-realidades>